

# MENDEURREN BATZORDEA



# BILERAREN AKTA

2008/10/27

**Batzordea:** Mendeurren Batzordea.  
**Eguna:** 2008/10/27  
**Ordua:** Hasiera 18:30 eta bukaera 20:00.  
**Tokia:** Kultur Etxea

## Bertaratuak:

Sotero Plazaola, Alkatea  
Mikel Alzelai, Kultura zinegotzia  
Marisol Santillan, Domingo Agirre Ikastetxea  
Sorkunde Agirreburualde, Doinua Musika eskola  
Asun Alkorta, Iratzarri  
Juan Karlos Agirre, Domingo Agirreko Guraso Elkarte.  
Xabi Lopez de Munain, Udal artxibaria  
Jose Luis Ugarte, Burdinola  
Bittor Larraza  
Jone Dorronsoro Dorronsoro, kultur-  
teknikaria.

## Esan-eginak eta erabakiak:

### 1. Egindakoen balorazioa.

Herriko taldeen jaialdia. Oso ondo joan zen. Mundu guztia izugarri gustora, bai ikusleak eta baita parte hartu zutenak ere, urtetan gogoratuko den ekitaldia izan da. Izugarritzko koordinazio lana azpimarratzen da.

Erraldoi konpartsa falta zela aipatu da eta konpartsakoek ere aipatu izan dute. Teknikariak dio arduradunen telefonoak bazituztela jaialdiko arduradunek eta beraiekin kontatu ez bada, ikuskizunaren martxak bide ematen ez zuelako izan dela. Honen harira aipatzen da baita ere Olagizonak ere ez zeudela aipatu zela, baina garbi utzi da horrelakoetan gidoia egiterakoan beti utzi behar izaten dela zerbait kanpoan alde batetik eta bestetik gidoiak berak ere markatzen duela zenbait taldek tokirik ez izatea.

Horiek horrela izanik ere oro har dena primeran eta oso ondo lotuta joan zela aipatu da.

Ikuskizunaren inguruan hainbat jende grabaketaren kopiak eskatzen ari da bai Urola

**Comisión:** Comisión del Centenario.  
**Día:** 27/10/2008  
**Hora:** Comienzo, 18:30 y final, 20:00.  
**Lugar:** Kultur Etxea

## Asistentes:

Sotero Plazaola, Alkatea  
Mikel Alzelai, Kultura Zinegotzia  
Marisol Santillan, Domingo Agirre Ikastetxea  
Sorkunde Agirreburualde, Doinua Musika Eskola  
Asun Alkorta, Iratzarri  
Juan Karlos Agirre, Domingo Agirreko guraso Elkarte.  
Xabi Lopez de Munain, Udal Artxibaria  
Jose Luis Ugarte, Burdinola  
Bittor Larraza  
Jone Dorronsoro Dorronsoro, kultur-  
teknikaria.

## Temas debatidos y acuerdos adoptados:

### 1. Valoración de lo realizado.

Festival de entidades locales: fue muy bien. Todo el mundo se quedó muy a gusto, tanto los espectadores como los participantes; será un festival que se recordará en años. Se recalca el tremendo trabajo de coordinación.

Se comenta que faltaba la comparsa de gigantes y ellos mismos lo han comentado. La técnico dice que los encargados del festival tenían los teléfonos y si no se ha contado con ellos es porque la marcha del festival no daba lugar a ello. También se dice que faltaban los ferrones pero se deja claro que en estos casos el guión marca la marcha del festival y suele suceder que se tiene que dejar algo fuera porque no tiene cabida.

De todas formas, en general todo ha ido muy bien y ha estado muy bien coordinado.

En torno al festival mucha gente está pidiendo la grabación a Urola Telebista y también se ha solicitado a esta comisión. Se

# MENDEURREN BATZORDEA



# BILERAREN AKTA

2008/10/27

Telebistara eta baita guri ere. Urola telebistari gainera adierazi zaio kopiarik ez saltzeko batzorde honetan erabakitzen dugun arte zer egin. Gaia eztabaidatu ondoren, emanaldiaren kopia editatu (hau da kreditoak eta behar direna azalpenak sartu) eta guk geuk kopiak egin eta salmentan jartzea erabaki da.

Mendi martxa: Oso ondo irten zen dena, mundu guztia oso gustura eta batez ere azpimarratzekoa izan da antolaketan parte hartu duten hiru talde nagusiek Brinkola Auzoa, Gaztetxea eta Izadik jarri duten jende kopurua eta izan den primerako elkarlana, eta horren erakusle larunbatean, urriaren 25ean, guztiek egin zuten ibilaldia eta ondorengo bazkaria. Dena primeran beraz. Partehartzea ere handia izan zen.

Mendi martxa mantentzeko asmoa dago, baina batzorde honek bere lana aurten amaituko duenez, aurrera begira Udalak martxa honen inguruan dituen helburuak berrikusi beharra aipatu da, eta hori etengabe egin beharra gainera: ingurunea ezagutu, errespetatu eta Parke Naturala erreibindikatu.

Sasietatik kritikaren bat iritsi dela eta Agenda 21eko batzordean aipatu zela esan da, batez ere horrelako ekitaldietan sortzen den zaborraren inguruan eta kontsumismoa bultzatzen denaren inguruan. Aurrerantzean gai horiek aurrez landu behar direla talde antolatzaileekin adierazi da eta aurtengo helburua ez zela hori, nahiz eta aurrera begira kontutan hartu beharko den, baina horrek Udalaren aldetik sentsibilizazio lan handia eskatzen du, etengabea eta agian Mendi martxa hau egiten den beste guztietatik desberdina izan behar duela, baina hori helburuetan markatu beharko dela eta poliki poliki lantzen joan.

## 2. Datozenak.

Hitzaldiak: Ostegunean izango dugu Norteko trenbideari buruzkoa, Brinkolako aretoan eta ondoren, azaroaren 27an azken hitzaldia izango da, Alvaro Ruanoren "Basogintza, abeltzaintza eta Nekazaritza Legazpin aro berrian" izenburua duena.

ha pedido a Urola telebista que no venda copias hasta que esta comisión tome una decisión al respecto. Después de tratar el tema, se ha decidido editar nosotros las copias del festival y poner luego a la venta.

Mendi Martxa: salió todo muy bien, todo el mundo estuvo a gusto y es de mencionar el trabajo realizado y la gente que se empleó en la organización por parte de las tres entidades organizadoras: Brinkola auzoa, Gaztetxe y la sociedad montañera Izadi Zaleak. Muestra de ello es que el día 25 de octubre hicieron ellos el recorrido y luego se juntaron en una comida. Todo bien por tanto. La participación fue muy numerosa.

Hay intención de mantener la marcha montañera pero como esta comisión termina su trabajo este año, en adelante el ayuntamiento deberá revisar los objetivos en torno a la marcha y eso se deberá hacer de continuo: dar a conocer el entorno, respetarlo y reivindicar el Parque Natural.

Desde Sasieta se ha recibido alguna queja que también se ha tratado en la comisión de Agenda 21, sobre la cantidad de basura generada en la marcha y sobre la promoción del consumismo. En adelante tendrán que estudiarse esos temas que deberán conocer los organizadores. El objetivo de este año no era ese aunque en adelante tendrá que tenerse en cuenta pero el ayuntamiento tiene una gran tarea de sensibilización; quizá esta marcha montañera tiene que distinguirse de las demás marchas por objetivos de ese tipo pero eso deberá marcarse en los objetivos y tendrán que trabajarse poco a poco.

## 2. Actos pendientes.

Conferencias: el jueves será la referente al ferrocarril del Norte; será en los salones parroquiales de Brinkola. Y la última conferencia será el 27 de noviembre a cargo de Alvaro Ruano con el tema: "Silvicultura, ganadería y agricultura en los nuevos tiempos"

# MENDEURREN BATZORDEA



# BILERAREN AKTA

2008/10/27

Batzar Nagusiak: abenduaren 4an Batzar Nagusiek bilera egingo dute Legazpin, udaletxean, eta ekitaldi hau izango da azken ekitaldi ofiziala.

### 3. Proposamen Berriak.

Masta eta ikurrina plazan: teknikariak adierazi du orainarte egin diren ekitaldiak puntualak izan direnez herritar batek planteatu diola Mendeurren Batzordeak proposatu dezala etorkizunerako geratuko litzatekeen oroigarri gisa, eta beste alde batetik gure identitatearen ikur moduan, aparkalekuko irteera pareko petrilean masta batean ikurrina jartzea. Gaia eztabaidatu ondoren ez da ikusten batzorde honekin loturarik izan dezakeenik eta gaia beste nonbait aztertu eta erabaki beharrekoa dela erabaki da.

Diario de Noticias: Bittor Larrazak dio Diario de Noticias-ek Mendurreneko ekitaldi guztiak bilduko litzuzkeen liburu eta Cd bat kaleratzea proposatu duela, beste zenbait herritan egin den moduan, baina aurrekontua eskatu diela ezer erantzun aurretik. Horretan uzten da.

Ilinti: Ilintikoen parte hartzea eskertzeko, teknikariak eskaparateetan izan dituzten liburu eta oroigarria oparitzea proposatu du. Aho batez horrela egitea erabaki da.

Batzordekideen afaria: Batzorde honetan urtean zehar biltzen aritu garenon arteko afari bat egitea proposatu dute batzordekide batzuk eta Alkateak adierazi du berak ere horixe proposatu behar zuela, eta bertan parte hartu dutenei gainera oroigarri bat banatzea. Afaria egitea erabaki da eta hori azken bilera eguna izatea. Abenduan egitekotan geratu gara.

### 4. Dirukontuak

Teknikariak etorrien artean banatu ditu dirukontuak, gastuenak bakarrik eta oraindik Mendi martxakoa, Web orriarena eta Lukenena itxi gabe daudela aipat du. Dagoeneko pasatu gara daukagun aurrekontutik baina momentuz ditugun sarrerekin berdintuta geratzen gara. Dirudienez, falta diren sarrera eta gastuekin

Juntas Generales: el próximo 4 de diciembre se reunirán las Juntas Generales en el ayuntamiento de Legazpi y ése será el último acto oficial.

### 3. Nuevas Propuestas

Mastil e ikurriña en la plaza: la técnico comenta que hasta ahora todo han sido actos puntuales y un ciudadano ha planteado que la comisión del centenario proponga colocar un mastil con la ikurriña en el petril de enfrente de la salida de los garajes subterráneos, algo que quedaría para un futuro como recuerdo de la celebración del 400º aniversario además de ser un signo de nuestra identidad. Después de debatir el tema no se ve relación alguna de la petición con esta comisión y se decide que eso habrá que tratarlo en alguno otro sitio.

Diario de Noticias: Bittor Larraza comenta que Diario de Noticias ha propuesto reunir todos los actos del centenario en un libro y un CD, como se hace en otros pueblos pero antes de nada les ha pedido el presupuesto. Se queda así.

Ilinti: la técnico propone regalarles el libro y el recuerdo que las tiendas de la asociación han tenido en los escaparates, agradeciendo así su colaboración. Se aprueba por unanimidad.

Cena de los miembros de la comisión: algunos miembros de la comisión han propuesto hacer una cena los que a lo largo de este año nos hemos reunido aquí y el Alcalde dice que él iba a proponer lo mismo y además ofrecer un recuerdo a todos. Se decide que la cena coincida con la última reunión y quedamos para diciembre.

### 4. Cuentas:

La técnico reparte entre los asistentes las cuentas, sólo de los gastos y todavía están por incluir los gastos de la marcha montañera, de la página Web y lo de Luken. Ya nos hemos pasado del presupuesto pero por el momento con los ingresos que tenemos estamos a la par. La previsión es

## **MENDEURREN BATZORDEA**



## **BILERAREN AKTA**

**2008/10/27**

juxtu juxtu ibiliko gara. Hori horrela, DVDA kostatzen zaigun prezioan saldu beharra aipatu da.

Alkateak dio garbi utzi nahi duela horren gutxi gastatu bada guztion parte hartzeari esker izan dela, guzti hau profesionalen esku utzi balitz askoz garestiago irtengo zen.

Besterik gabe hurrengo bilerara afaria izango denez guztiei jakin araziko zaie.

que con los gastos e ingresos que faltan andaremos justos. Así, el DVD habrá que venderlo por el mismo precio que nos cueste a nosotros.

El alcalde dice que quiere dejar claro que si se ha gastado tan poco es gracias a la participación de todos, ya que si todo eso se deja en manos de profesionales hubiera salido bastante más caro.

Sin más temas a tratar, la siguiente reunión será con cena incluida y se avisará a todos.